



## Uribarriko Andra Maria eliza (Durango)

Andra Maria eliza Euskal Herriko obrarik ikaragarrikoenetarikoa da, arkitektura klasizistan eta barrokoan erabiltzen zen forma mota dauka.

Antzinako disenuari eusten dio, gotiko aldiaren bukaerakoa, eta ez du espiritu hori guztiz baztertzen jatorrizko gangak arabiltzan. Lehenengo garaiko elementu garrantzi batzuk baditu oraindik: korua, Bizkaian Errege Katolikoen estiloa duen ederrena.

Eraiki berezia da alderdi askorengatik, esaterako nabe nagusiaren nagusitasunagatik albokoen aldean edo kontrahormen arteko absidean zabalduak kaperen originalitateagatik. Hala ere, ataripea da gehien nabarmentzen dena, bere egileek oinarritzko grafoesatika ondo menperatzen baitzuten.

Eraikuntzaren ezaugarriak direla eta, korua 1490 eta 1510 urteen artean eraiki zela igartzen da, data hori dorrearen beheko atalarekin bat dator; goikoa, berriz, XVI. mendearen lehenengo erdialdean egin zen.

Elizaren eraikuntzan, XVII. mende osoan, oso arkitekto ezagunek parte hartu zuten esaterako San Juan de Urizarzabalak edo Juan de Ansolak. Ataripea 1679-1680 artean eraiki zen Barainkua eta Gabiria maisuen diseinuetan oinarrituta.

### Eraikina

Eraikina herriaren alde zaharraren barruan dago eta ez da erreza bere estiloa zehaztea/ lertzerreza bere egiturari, behintzat, bi eraikialdi desberdinak islatzen batira: Lehenengoa gotiko-errenazentista, 1500 urte ingurukoa eta bestea, klasizista-barrokoa, XVII. mendekoa.

Tenploa, silarrizkoa, bere tamainagatik gailentzen da. Lekuaren banaketa eliza zaharrean planteatzen da, eliza horrek nabe handiko eraikina izan behar baitzuen hormakonketako kaperekin zeinak berreraikitzean alboko nabeekin ordezkatu ziren.

Burualea, abside poligonalekoa, eta beheko nabeetako lehenengo kaperak errespetatu ziren guztiz, horren lekuko bao batzuk dira, eta harlandua bera, etab.

Barruko euskarriak pilare klasizistak dira, aurrealden pilastra konposatuak dituzte eta goian erdi-puntuko arkuez lotuta daude. Pilare horien gainean kanpo-karriore bat dago tenpluan zehar, estali gabekoa eta burdinezko karela.

Kanpoan kontrahorma taludikoek eusten diote elizari eta oinetan, berriz, guntzio hori arkupeek egiten dute. Nabeek gurutze-ganga dute, konplexuagoa nabe handian.

Koruak, arku eskarzano zabalean diseinatuak, apaingarri ugari dauzka: izarrez betetako enjutak, imajinak, eta gurutze-ganga, landutako giltzarriez. Ez da berreraikitutako eleizakoa, baizik eta, aurrekoarena, azken fasekoa.

Uribarriko Andra Mariak bi ate ditu. Eguerdiko ataripekoak bi erregistro ditu. Sarbide nagusia tenploaren oinetan zabaltzen da ate-erretaula konplexu baten osagaia izanez, estilo klasizistakoa eta oso soila; triglifoak eta metopak dituen friso dotoredun ataripe handiak ate-multzoa babesten du.


Dorrea hiru ataletan mailakatuta dago, goiko aldean bukaeran pinakuloak eta trazeria dauzka. Bigarren dorre gisa husillo poligonala dauka, kanpai-hormaz estalia.

Multzoaren berebiziko elementua eguerdiko ataripea da, herri-arotzezko lan bikaina. Hamaika pilare sendok, bederatzita pilastrak eta elizaren hormek beraiek eusten diote.

### Altzariak

Barruan orokorrean altzari guztiak dira aipatzekoak, eta bereziki, aparteko erretaula handia, erromanista, XVI. mendearen bukaerakoa, Martin Ruiz de Zubiate maisuarena, Euskal Herri osoko mugimendu horretako egile onenetarikoa bat. Erretaula handiaz gain, eleizan alboetako erretaula ugari, imajinak, pulpituak, etb. daude. Sakristiako kaxoiak ere nabarmentzen dira, rococo estilokoak.

Testua: Iñaki Madariaga.



### Uribarriko Santa Maria eliza

Durango. (Andramari kalean, 1. Durangoko alde zaharraren erdialdean).

### Inguruko beste leku interesgarri batzuk:

(Durango)

- Kurutzia Gurutzea.
- Etxezarreta Jauregia (Arte eta Historia museoa)
- Santa Ana Arkua.
- Tabirako San Pedro eliza.